

Pailazo Txiki

Bazen behin pailazoen munduan "Pailazo Txiki" izena zuen mutiko bat. Pailazo Txiki ez zen besteak bezalakoa. Ez txikia zelako, baizik eta ez zuelako betirako pailazoa izan nahi. Egun batean, bere herriko auzo txiki batean, gizon bat entzun zuen haxe esaten...

"JAUN-ANDREOK, ETOR ZAITEZTE ABENDUAREN 23AN, MUNDUKO ZIRKORIK ONENA IKUSTERA. ZIZURKILGO PLAZAN OSPATUKO DUGU JAIALDIA ETA, BARREA, ZORIONTASUNA, POZTASUNA. . . ZIURTATUTA DAUDE! MAXIMUS ZIRKOA. 17:30ETAN HASIKO DUGU LEHEN FUNTZIOA!"

Pailazo Txikik hori entzun ondoren urduri jarri zen. Bere gelako lagun guztiak zirkoan nolako gauzak egiten zituzten ikustera joango ziren, eta berak ez zuen nahi. Lotsa eta beldurra ere sentitzen zuen. Horregatik etxera joan eta bere aita eta amari haxe galdetu zien:

- Ama, aita, zergatik gara pailazoak eta ez pertsona arruntak? –eta amak erantzun zion:
- Gu edozein familia bezala bizi gara seme, zergatik pentsatzen duzu hori?
- Ama ez didazu ulertzen, nik ez dut pailazo bat izan nahi! nahiago nuke adibidez jatetxe batean lan egiten duten pertsonak izango bagina.
- Eta zuk nola dakizu hori guztia? -galdetu zion aitak.
- Aita, liburu asko ditut eta horietatik gauza asko ikasten dira. Oso zoriontsu izango ginateke denok!
- Baina, seme, zuk oso ondo dakizu hori ezinezkoa dela!
- Baina, aita, zergatik egin ninduzuen ni pailazo? Ez dut ulertzen! -esan zuen Pailazo Txikik.
- Seme, zure senide guztiak izan direlako pailazoak. Zergatik ez duzu pailazoa izan nahi?-galdetu zion bere amak.

Momentu horretan, Pailazo Txikiren aitak amaren belarrira haxe esan zion:

- Laztana ez egon hain seguru, ez al zara gogoratzen nire lehengusu Patxi Putxi Ibargutxitaz?

Orduan Pailazo Txikik esan zion bere aitari:

- Aita, zer esan diozu amari?
- Ba, nire lehengusu. . . -Amaren doministiku ikaragarriak eragotzi zuen elkarriketa.
- Ui!! barkatu laztana, nahi gabe izan da.-esan zion Pailazo Txikiren amak, doministikuagatik, aitak, ezin izan zuelako hitz egiten jarraitu.

Pailazo Txikiren familiak ez zuen inoiz gezurrik esaten, pailazokeriak egiten ari zirenean bakarrik. Elkarriketa serioak izaten zituzten askotan eta barrea eta algarak zirkorako uzten zituzten askotan. Edozein izaki bizidun bezala, aurrera atera behar izaten zuten, zituzten arazoekin, eta pailazokeriak egin, nahiz eta oso triste egon momentu horretan.

Pailazo Txikik, bere gurasoekin elkarriketa amaitu ondoren, bere lagunekin egoteko gogo handia izan zuen. Ez zuen nahi bere aita edo amak jakitea gizon batek, herrian zehar, zirkoari buruz esan zuena. Pailazo Txikiri ez zitzaion zirkoa gustatzen eta zerbait egin behar zuen. Horregatik etxetik atera, eta bere herriko parkera joan zen ondo pasatzeko asmoz. Baina parkea obretan zegoen, handiagoa egin nahi baitzuten, eta bertatik alde egin behar izan zuen. Bere gelako lagun guztiek zirko bat nola eraikitzen zen eta bertan egiten zuten lana nolakoa zen ikusi nahi zuten. Pailazo Txikik, orduan, ez zekien nora joan. Azkenean etxera joan zen eta bertan pertsona arraro bat ikusi zuen bere etxeko sofán eserita.

- Aizu, zu nor zara?-galdetu zion Pailazo Txikik pertsona arraroari.

-Ni Patxi naiz, zure aitaren lehengusua. -erantzun zion gizon arraroak .
-Zure aitak ez dizu nitaz hitzegin ala? -galdetu zion berriro gizon arraroak.

Momentu hartan, Pailazo Txiki bere ondoan eseri zen eta dena kontatzeko eskatu zion. Patxi izeneko gizonak, Pailazo Txikiren etxeko giltzak zituen, eta Pailazo Txiki sofan ongi eseri bezain laster, Patxi bere istorioa kontatzen hasi zitzaion:

- Hasieran, ni pailazo bat nintzen. Gaur egun aldiz, ikusten duzun bezala, ez naiz pailazo bat! Edozein izaki bizidun bat bezalakoa naiz. Sudur gorria ken dezaket, eta edozeinek duen sudurra dut. Baina jarrai dezadan nire istorioarekin.

Egun batean konturatu nintzen auzo txiki eta arraro bat zegoela gure herrian eta bertara joan nintzen. Mamuen auzo bat zela ematen zuen, eta nik beldurrik ez nuenez, sartu egin nintzen. Bertan kartel asko zeuden eta gehienak zirkoenak ziren. Auzoaren bukaeran gizon bat zegoen eta kartel batzuk itsasten ari zen. Orduan nik kartelengatik galdetu nion. Gizonak erantzun zidan zirko bateko jabea zela eta lan egiteko lanpostuak zeudela esateko zirela kartel horiek. Auzo horretan inor ez zela bizi esan nion baina bera barrezka hasi zen. Ez zidan jaramonik ere egin. Hala ere, nik lana bilatu nahi nuen garai hartan eta zirkoan lan egiteko eskatu nion. Jabeak segituan baiezkua eman zidan eta handik astebetara zirko pailazo bilakatu nintzen. Patxi Putxi Ibargutxi pailazoa nintzen, umeen pailazorik maiteena. Denek maite ninduten eta dena ederra zen. Oso urte onak bizi izan nituen pailazo bezala lan egiten. Munduko leku bitxi eta polit asko ezagutzeko aukera ere eman zidan zirkoak. Baina iritsi zen egun bat, pailazo izateaz aspertu egin nintzela eta gurasoekin hitz egin nuen. Ez nuela pailazo izan nahi esan nien. Zirkoak beti izango zuela toki bat nire bihotzean, baina beste zerbaitean ere lan egitea gustatuko litzaidakeela, okindegi batean esaterako. Gurasoek ez zidaten ezezkorik eman eta nire desioa onartu zuten. Eta handik aurrera dena oso ondo joan zait.

Dena kontatu ondoren, Pailazo Txikiren aita eta ama iritsi ziren.

-Nire anaia Patxi Putxi Ibargutxi! Zer moduz zaude? -galdetu zion Pailazo Txikiren aitak.

-Oso triste, anaiatxo. Zergatik ez diozu zure semeari niri buruz hitzegin?

-Bueno, ba. . . -erantzun zion aitak.

-Oker ez banago, zuk esan zenidan, ez duela batere axola pertsona bat kanpotik nolakoa den onartzea. Garrantzitsuena gure barnean daukagun pailazo baten bihotza edukitzea zela ere esan zenidan. Baina ikusten dut iritziz aldatu duzula.

-Ez dut iritziz aldatu Patxi. Ezin nuen zure izena aipatu nire semeak, zuk bezala, ez duelako pailazo izan nahi, eta horregatik ez diot ezer esan. Baina horrek ez du esan nahi nik ez zaitudala maite Patxi. Nik izugarri maite zaitut! Nire anaia zara Patxi!

Pailazo Txiki gelara joan zen, eta gurasoei Patxi Putxiarekin hitz egiten utzi zien. Berak, bere ohean etzan eta mundua beste era desberdin batean ikusten hasi zen. Patxi Putxi Ibargutxi bere osabari esker, pailazo lanbidea gustatzen hasi zitzaion eta segituan bere gurasoekin batera, zirkoan aritu zen. Bere gelakide eta lagunak bera animatzera joaten ziren ia beti. Gaur egun, oso zoriontsua da eta mundu guztia zeharkatzen ari da, umeak, bere pailazokeriekin, zoriontsu egiteko asmoz. Etorriko al da noizbait gure herrira?